

180 EREDUA BIDE TELEMATIKOTIK AURKEZTEKO FITXATEGIEN ETA ORDENAGAILUZ ZUZENEAN IRAKURTZEKO MODUKO EUSKARRIEN DISEINU FISIKO ETA LOGIKOAK.

A) EUSKARRI MAGNETIKOEN EZAUGARRIAK

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergako, Sozietateen gaineko Zergako eta establezimendu iraunkorrei dagokien Ez Egoiliarren Errentaren gaineko Zergako hiri lurreko higiezin errentamendutik edo azpierrentamendutik datozen zenbait errenta edo etekinen gaineko atxikipenen eta konturako sarrerren urteko laburpena (180 eredua) aurkezteko ordenagailuz zuzenean irakurtzeko moduko euskarriek ezaugarri hauek eduki behar dituzte:

DVD-R edo DVD+R

- Mota: DVD-R edo DVD+R.
- Edukiera: gehienez 4,7 GB.
- UDF fitxategi sistema.
- Alde bakarra eta geruza soila.

CD-R

- Mota: CD-R (Compact Disc Recordable), 12 cm-koa.
- Edukiera: gehienez 700 MB.
- ISO/IEC DIS 9660: 1990 formatua, Joliet luzapenarekin zein hura gabe.
- Saio anitz: ez.

Fitxategiak CD-R bat baino gehiago betetzen baditu, DVD-R edo DVD+R diskoa erabili beharko da.

Aitortzaileak eskura duen makinaren ezaugarriak eskatutako zehaztapen teknikoekin bat ez badatoz, idazkia bidali beharko du Bizkaiko Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Saileko Identifikazio eta Euskarrien Atalera (Kaputxinoen bidea 2 eta 4, 48013 Bilbo) eta bertan bere makinaren ezaugarri teknikoak azalduko ditu eta aurkeztuko dituen erregistroen kopuruaren berri emango, zehaztutako ezaugarri teknikoekin bateragarria den sistema aurkitzeko, halakorik egonez gero.

B) DISEINU LOGIKOAK.

ERREGISTROEN DESKRIPZIOA

Aitortzaile bakoitzeko bi erregistro mota ezberdin jarriko dira, lehenengo zuriuneagatik bereizten direnak, honako irizpideei jarraituz:

1. mota: aitortzailearen erregistroa: identifikazio datuak eta aitortenaren laburpena. Atal hauetan beherago eta foru agindu honen eranskinean jasotako erregistro motetatik lehenengoaren diseinua.

2. mota: aitortuaren erregistroa. Atal hauetan beherago eta foru agindu honen eranskinean jasotako erregistro motetatik bigarrenaren diseinua.

Aurkezpenaren hurrenkera erregistro motaren arabera izango da; 1. motako erregistro bakarra egongo da, eta 2. motako erregistro bat aitorteneko aitortu bakoitzeko.

Aurkezpena talde batek egiten badu (aitortzaile bat baino gehiago fitxategian), euskarriaren lehenengo erregistroa zero motakoa izan behar da, atal honetan eta foru agindu honen eranskinean azalduko den zero motako erregistroaren diseinuaren arabera. Zero motako erregistroan aurkezpenaren arduraduna den pertsonaren edo erakundearen datuak bilduko dira; arduraduna agertzea nahitaezkoa da, pertsona edo erakunde hori euskarrian aitortzaile moduan ere azaldu arren. Jarraian lehenengo aitortzailearen datuak jarriko dira (1. mota) eta gero beraren aitortuenak (2. mota); gero hurrengo aitortzailearen datuak, eta horrela hurrenez hurren.

Eremu alfanumeriko eta alfabetiko guztiak ezkerrean lerrokatu behar dira eta eskuinean zuriuneak utzi; letra larriz idatzi behar da, eta ezin da erabili ez karaktere berezirik ez bokal azentudunik.

Hizkuntzaren karaktere berezietarako ISO-8859-1 kodifikazioa erabiliko da. Horrela, "Ñ" letra ASCII 209 da (Hex. D1) eta "Ç" (ze hautsi larria) letra ASCII 199 (Hex. C7).

Zenbakizko eremu guztiak eskuinean lerrokatu eta ezkerrean zeroz beteta aurkeztu behar dira, zeinurik gabe eta paketatuta gabe.

Eremu guztiek izan behar dute edukia, eremuaren deskripzioan besterik adierazi ezean. Edukirik ez badute, **zenbakizko eremuetan** zeroak jarri behar dira eta bai eremu **alfanumerikoak** bai **alfabetikoak** hutsik utzi behar dira.

180 EREDUA.

**A.- 0 ERREGISTRO MOTA: AURKEZLEAREN ERREGISTROA.
(ZURIUNEAK, IZAERA ETA EREMUEN DESKRIPZIOA)**

ZURIUNEAK	IZAERA	EREMUEN DESKRIPZIOA
1	Zenbakizkoa	ERREGISTRO MOTA Finkoa: "0" (zero).
2-4	Zenbakizkoa	AURKEZPEN EREDUA Finkoa: "180".
5-8	Zenbakizkoa	EKITALDIA Aitorpenaren zerga-ekitaldiaren lau zifrak.
9-17	Alfanumerikoa	AURKEZLEAREN IFZ Aurkezlearen IFZ jarri behar da. Eremu hau eskuinean lerrokatu behar da, kontrol-karakterea azkenean jarrita, eta ezkerreko zuriuneetan zeroak idatzi, IFZren osaerari eta erabilerari buruzko arauetan ezarritako erregelekin bat etorritik.
18-57	Alfanumerikoa	AURKEZLEAREN DEITURAK ETA IZENA EDO SOZIJETATEAREN IZENA 1. motako erregistroan aitortzailearentzat zehaztu den irizpide berarekin beteko da.
58-109	Alfanumerikoa	AURKEZLEAREN HELBIDEA Eremu honetan bederatzi atal daude: 58-59: SG: bide publikoaren siglak. 60-79: BIDE PUBLIKOA: bide publikoaren izena. Alfabetikoa izan behar da eta, ondorioz, izenean zenbakiren bat badago, zenbakia letraz idatzi behar da (adibidez: Maiatzaren 2a Maiatzaren bira izango da). Errepidea bada, km laburdurarekin amaituko da. 80-84: ZENBAKIA: etxearen zenbakia edo kilometro puntua (dezimalik gabe) zenbakizkoa izango da, bost zuriunekoa. 85-86: ESKAILERA. 87-88: SOLAIRUA. 89-90: ALDEA. 91-95: POSTA KODEA: aurkezlearen helbideari dagokiona. Zenbakizkoa izango da, bost zuriunekoa. 96-107: UDALERRIA: hamabi zuriune. Izenak hamabi karaktere baino gehiago baditu, lehenengo hamabiak idatzi behar dira, artikulurik eta preposiziorik gabe. 108-109: PROBINTZIAREN KODEA: aitortuaren erregistroko (2. mota) "Probintziaren kodea" eremurako zehaztutako irizpideari jarraituz bete behar da. Zenbakizkoa.
110-114	Zenbakizkoa	AITORTZAILEAK, GUZTIRA Bost zuriuneko eremua, zenbakiz bete beharrekoa. Taldea euskarrian sarturiko pertsona edo erakunde aitortzaileen guztizko kopurua adierazi behar da (grabaturiko 1. motako erregistroen kopurua).
115-123	Zenbakizkoa	AITORTUAK, GUZTIRA 9 zuriuneko eremua, zenbakiz bete beharrekoa. Euskarrian ageri diren aitortuen

124	Alfabetikoa	guztizko kopurua adierazi behar da, aitortzaileak nortzuk diren kontuan izan gabe. EUSKARRI MOTA Gako hauetariko bat jarri behar da: "C": informazioa CD-Ran, DVD-Ran edo DVD +Ran aurkezten bada. 'T': telematikoki aurkezten bada.
125-173	Alfanumerikoa	HARREMANETARAKO PERTSONA Harremanetarako pertsonaren datuak. Eremu honetan bi atal daude: 125-133: TELEFONOA : 9 zuriuneko eremua, zenbakiz bete beharrekoa. 134-173: DEITURAK ETA IZENA : aitortuarentzat zehaztutako irizpide berari jarraituz beteko da (pertsone fisikoa 1. motako erregistroan). HUTSIK.
174-500	-----	HUTSIK.

*Zenbateko guztiak positiboak izan behar dira.

*Edukirik gabeko **zenbakizko eremuak** zeroz bete behar dira.

*Edukirik gabeko **eremu alfanumeriko eta alfabetikoak** hutsik utzi behar dira.

***Zenbakizko eremu** guztiak eskuinean lerrokatu behar dira eta ezkerrean zeroz bete behar dira.

***Eremu alfanumeriko eta alfabetiko** guztiak ezkerrean lerrokatu behar dira eta eskuinaldean hutsik utzi, eta letra larriz idatzi behar da, karaktere berezirik gabe eta azentudun bokalik gabe, eremuaren deskripzioan kontrakorik azaldu ezean.

**B.- 1. MOTAKO ERREGISTROA: AITORTZAILEAREN ERREGISTROA.
(ZURIUNEAK, IZAERA ETA EREMUEN DESKRIPZIOA)**

ZURIUNEAK	IZAERA	EREMUEN DESKRIPZIOA
1	Zenbakizkoa	ERREGISTRO MOTA Finkoa: '1'.
2-4	Zenbakizkoa	AITORPEN EREDUA Finkoa: '180'.
5-8	Zenbakizkoa	EKITALDIA Aitorpenaren zerga-ekitaldiaren lau zifrak.
9-17	Alfanumerikoa	AITORTZAILEAREN IFZ Aitortzailearen IFZ adierazi behar da. Eremu hau eskuinean lerrokatu behar da, kontrol-karakterea azkenean jarrita, eta ezkerreko zuriuneetan zeroak idatzi, IFZren osaerari eta erabilerari buruzko arauetan ezarritako erregelak bat etorri.
18-57	Alfanumerikoa	AITORTZAILEAREN DEITURAK ETA IZENA EDO SOZIJETATEAREN IZENA Pertsona fisikoa bada, lehen deitura, hutsune bat, bigarren deitura, hutsune bat eta izen osoa, ordena horreketan nahitaez. Pertsona juridikoentzat eta nortasun juridikorik gabeko erakundeentzat, sozietatearen izen osoa edo deitura jarriko da, anagramarik gabe. Eremu honetan inola ere ezin da jarri merkataritzako izenik.
58	Alfabetikoa	EUSKARRI MOTA Gako hauekariko bat jarri behar da: 'C': informazioa CD-Ran, DVD-Ran edo DVD +Ran aurkezten bada. 'T': telematikoki aurkezten bada.
59-107	Alfanumerikoa	HARREMANETARAKO PERTSONA Harremanetarako pertsonaren datuak. Eremu honetan bi atal daude: 59-67 TELEFONOA: 9 zuriuneko eremua, zenbakiz bete beharrekoa. 68-107 DEITURAK ETA IZENA: lehenengo deitura, zuriune bat, bigarren deitura, zuriune bat, eta azkenean izen osoa, hurrenkera horreketan nahitaez.
108-120	Zenbakizkoa	ZEROAK
121-122	Alfabetikoa	AITORPEN OSAGARRIA EDO ORDEZKOA Aparteko kasuetan, bigarren aitorpena edo ondoko besteren bat aurkeztuz gero, eremu hauekariko bat bete behar da nahitaez: 121 AITORPEN OSAGARRIA: aitorpen berriaren xedea lehenago aurkezturiko ekitaldi bereko beste aitorpen batean agertu behar izan arren bertan oso-osorik jarri gabe geratu ziren 2. motako erregistro berriak sartzea bada, "C" jarri behar da. 122 ORDEZKO AITORPENA: Aitorpena ekitaldi bereko aurreko beste aitorpen bat oso-osorik deuseztatu eta ordezkatzeko aurkeztu bada, "S" jarri behar da. Ordezko aitorpen batek aurreko aitorpen bakar bat baino ezin du deuseztatu.
123-135	Zenbakizkoa	ZEROAK
136-144	Zenbakizkoa	AITORTUAK, GUZTIRA

145-160

Alfanumerikoa

Aitortzaile honentzat euskarrian zerrendatu diren aitortuen guztizko kopurua zehaztu behar da. Aitortu bat erregistro batean baino gehiagotan agertzen bada, agertzen den beste aldiz konputatu behar da. (2. motako erregistroen kopurua)

ATXIKIPENEN ETA KONTURAKO SARREREN OINARRIA

'ATXIKIPENEN ETA KONTURAKO SARREREN OINARRIA' (80-92 bitarteko zuriuneak) eremuan jaso diren eta 2. motako erregistroei dagozkien diru kopuruen guztizko zenbatekoa jarriko da.

Eremu honetan atal hauek daude:

145 **ZEINUA:** eremu alfabetikoa da, atxikipen eta konturako sarrerren oinarrien zenbatekoa kalkulatzeko baturaren emaitza (1. motako erregistro honetako 146-160 zuriuneak) 0 (zero) baino gutxiago denean bete beharrekoa. Horrelakoetan "N" idatziko da; gainerako guztietan zuriunea hutsik utziko da.

146-160 **ZENBATEKOA:** zenbakizko eremua; hemen jarriko da 'ATXIKIPENEN ETA KONTURAKO SARREREN OINARRIA' eremuan (80-92 zuriuneak, aitortuaren erregistroei dagozkienak) jasotako diru kopuruen batura, zein modalitate-gakori dagozkion kontuan hartu gabe. Baldin eta aitortuen erregistroetan "N" idatzi bada "ATXIKIPENEN ETA KONTURAKO SARREREN OINARRIAREN ZEINUA" eremuan (2. motako erregistroko 79 zuriunea), aurreko ekitaldietan oker edo kopurua gaingiduz jaso ziren hartukizunen itzulketa egoteagatik, kopuru horiek minus zeinuarekin konputatuko dira zenbatekoen baturan.

Eremu honetan bi atal daude:

146-158 Atxikipenen eta konturako sarrerren oinarrien guztizko zenbatekoaren zati osoa; edukirik ez badu, zeroak jarri behar dira.

159-160 Atxikipenen eta konturako sarrerren oinarrien guztizko zenbatekoaren zati dezimala; edukirik ez badu, zeroak jarri behar dira.

Zenbatekoak EUROTAN eman behar dira.

161-175

Zenbakizkoa

SARRERAK

ATXIKIPENAK ETA KONTURAKO

Hemen jarriko da, zeinurik gabe, "ATXIKIPENAK ETA KONTURAKO SARRERAK" (97-109 bitarteko zuriuneak) eremuan jaso diren eta aitortuaren erregistroei dagozkien diru kopuruen batura, zein hartukizun modalitateri dagozkion kontuan hartu gabe.

Eremu honetan bi atal daude:

161-173 Atxikipenen eta konturako sarrerren guztizko zenbatekoaren zati osoa; edukirik ez badu, zeroak jarri behar dira.

174-175 Atxikipenen eta konturako sarrerren guztizko zenbatekoaren zati dezimala; edukirik ez badu, zeroak jarri behar dira.

Zenbatekoak EUROTAN eman behar dira.

176-500

HUTSIK

*Zenbateko guztiak positiboak izan behar dira.

*Edukirik gabeko **zenbakizko eremuak** zeroz bete behar dira.

*Edukirik gabeko **eremu alfanumeriko eta alfabetikoak** hutsik utzi behar dira.

***Zenbakizko eremu** guztiak eskuinean lerrokatu behar dira eta ezkerrean zeroz bete behar dira.

***Eremu alfanumeriko eta alfabetiko** guztiak ezkerrean lerrokatu behar dira eta eskuinaldean hutsik utzi, eta letra larriz idatzi behar da, karaktere berezirik gabe eta azentudun bokalik gabe, eremuaren deskripzioan kontrakorik azaldu ezean.

**C.- 2. ERREGISTRO MOTA: AITORTUAREN ERREGISTROA.
(ZURIUNEAK, IZAERA ETA EREMUEN DESKRIPZIOA)**

<u>ZURIUNEAK</u>	<u>IZAERA</u>	<u>EREMUEN DESKRIPZIOA</u>
1	Zenbakizkoa	ERREGISTRO MOTA Finkoa: '2'
2-4	Zenbakizkoa	AITORPEN EREDUA Finkoa: '180'.
5-8	Zenbakizkoa	EKITALDIA 1. motako erregistroko zuriune hauetan dagoena idatzi behar da.
9-17	Alfanumerikoa	AITORTZAILEAREN IFZ 1. motako erregistroko zuriune hauetan dagoena idatzi behar da.
18-26	Alfanumerikoa	AITORTUAREN IFZ Aitortuak Espainian emandako IFZ badauka, hauxe jarri behar da: Pertsona fisikoa bada, aitortuaren IFZ jarri behar da, IFZren osaerari eta erabilerari buruzko arauetan ezarritako erregelekin bat etorri. Aitortua pertsona juridikoa edo nortasun juridikorik gabeko erakundea (ondasun erkidegoa, sozietate zibila, jaraunspen banatugabea, etab.) bada, beraren identifikazio fiskaleko zenbakia jarri behar da. 14 urtetik beherakoak zergen arloko harremanetan edo zergetan eragina duten harremanetan identifikatzeko, 14 urtetik beherako pertsonaren datuak (identifikazio fiskaleko zenbakia barne) eta legezko ordezkariarenak agertu behar dira. Eremu hau eskuinean lerrokatu behar da, kontrol karakterea azken zuriunean jarri behar da eta ezkerreko zuriuneak zeroz bete behar dira. Eremu honetan Espainian emandako IFZak bakarrik jar daitezke.
27-35	Alfanumerikoa	LEGEZKO ORDEZKARIAREN IFZ Aitortua 14 urtetik beherakoa bada, beraren legezko ordezkariaren (aitaren, amaren edo tutorearen) identifikazio fiskaleko zenbakia jarri behar da eremu honetan. Eremu hau eskuinean lerrokatu behar da, kontrol karakterea azken zuriunean jarri behar da eta ezkerreko zuriuneak zeroz bete behar dira. Gainerako kasuetan hutsik utzi behar da.
36-75	Alfanumerikoa	AITORTUAREN DEITURAK ETA IZENA EDO SOZIETATEAREN IZENA a) Pertsona fisikoa bada, honela idatzi behar dira: lehen deitura, hutsune bat, bigarren deitura, hutsune bat eta izen osoa, hurrenkera horrexetan nahitaez. Aitortua 14 urtetik beherakoa bada, eremu honetan beraren deiturak eta izena jarri behar dira. b) Pertsona juridikoa edo nortasun juridikorik gabeko erakundea bada, erakundearen

76-77

Zenbakizkoa

sozietate-izena edo izen osoa jarriko da, anagramarik gabe.

PROBINTZIAREN KODEA

Aitortuaren helbidearen probintziari edo, hala denean, hiri autonomoari dagozkion zenbakizko bi digituak jarriko dira, honako zerrenda honen arabera:

PROBINTZIA	KODEA	PROBINTZIA	KODEA
Araba	01	León	24
Albacete	02	Lleida	25
Alacant	03	Lugo	27
Almería	04	Madril	28
Asturias	33	Málaga	29
Avila	05	Melilla	52
Badajoz	06	Murtzia	30
Bartzelona	08	Nafarroa	31
Burgos	09	Ourense	32
Cáceres	10	Palentzia	34
Cádiz	11	Palmas, Las	35
Kantabria	39	Pontevedra	36
Castelló	12	Errioxa	26
Ceuta	51	Salamanca	37
Ciudad Real	13	S.C. Tenerifekoa	38
Kordoba	14	Segovia	40
Coruña	15	Sevilla	41
Cuenca	16	Soria	42
Girona	17	Tarragona	43
Granada	18	Teruel	44
Guadalajara	19	Toledo	45
Gipuzkoa	20	Valentzia	46
Huelva	21	Valladolid	47
Huesca	22	Bizkaia	48
Balearr Uharteak	07	Zamora	49
Jaén	23	Zaragoza	50

78

Zenbakizkoa

MODALITATEA

Aitortu bakoitzari ordaindutako errentaren edo etekinaren modalitatea adieraziko da gako hauek erabiliz:

“1”, ordaindutako errenta edo etekina diruzkoa bada.

“2”, ordaindutako errenta edo etekina gauzazkoa bada.

79-92

Alfanumerikoa

ATXIKIPENEN ETA KONTURAKO SARREREN OINARRIA

Honako zenbateko hau jarri behar da:

- Aitortua Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren ziozko zergaduna bada, errentatzaileari kontzeptu guztiengatik ordaindutako etekinen zenbateko guztien batura jarriko da, Balio Erantsiaren gaineko Zerga sartu gabe.
- Aitortua Sozietateen gaineko Zergaren edo Ez Egoiliarren gaineko Zergaren (establezimendu iraunkorrek) ziozko zergaduna bada, alokairu gisa ordaindutako kontraprestazio osoa jarriko da, Balio Erantsiaren gaineko Zerga sartu gabe.

Eremu honetan atal hauek daude:

79 **ZEINUA:** Alfabetikoa. Aitortuak, aurreko ekitaldietan zor ez ziren edo soberan jasotako

		<p>kopuruak izanik, aitorpenaren ekitaldian itzulitako kopuruei dagozkien hartukizunak egonez gero bakarrik bete behar da eremu hau. Horrelakoetan "N" gakoa jarri behar da, eta gainerako kasu guztietan zuriunea hutsik utzi behar da.</p> <p>80-92 ZENBATEKOA: 13 zuriuneko eremua, zenbakiz bete beharrekoa. Aitortu bakoitzari benetan ordaindutako hartukizunen urteko zenbateko osoa zehaztu behar da, zeinurik gabe eta koma dezimalik gabe.</p> <p>Eremu honetan bi atal daude:</p> <p>80-90 Atxikipenen eta konturako sarreraren oinarriaren zenbatekoaren zati osoa; edukirik ez badu, zeroak jarri behar dira.</p> <p>91-92 Atxikipenen eta konturako sarreraren oinarriaren zenbatekoaren zati dezimala; edukirik ez badu, zeroak jarri behar dira.</p> <p>Zenbatekoak EUROTAN eman behar dira.</p>
93-96	Zenbakizkoa	<p>ATXIKIPEN PORTZENTAJEA</p> <p>Eremu honetan bi atal daude:</p> <p>93-94 OSOA. Zenbakizkoa. Zati osoa: portzentajearen zati osoa jarri behar da (ez badago, ZEROAK jarri).</p> <p>95-96 DEZIMALA. Zenbakizkoa. Zati dezimala: portzentajearen zati dezimala jarriko da (ez badago, ZEROAK jarri behar dira). Urtean zehar portzentaje bat baino gehiago aplikatu bada, azkena baizik ez da jarri behar.</p>
97-109 SARRERAK	Zenbakizkoa	<p>ATXIKIPENAK ETA KONTURAKO</p> <p>13 zuriuneko eremua, zenbakiz bete beharrekoa. Aitortuaren "ATXIKIPENEN ETA KONTURAKO SARREREN OINARRIA" eremuari dagozkion atxikipenen eta konturako sarreraren guztizko zenbatekoa jarriko da.</p> <p>Eremu honetan bi atal daude:</p> <p>97-107 Atxikipenen eta konturako sarreraren guztizko zenbatekoaren zati osoa; edukirik ez badu, zeroak jarri behar dira.</p> <p>108-109 Atxikipenen eta konturako sarreraren guztizko zenbatekoaren zati dezimala; edukirik ez badu, zeroak jarri behar dira.</p> <p>Zenbatekoak EUROTAN eman behar dira.</p>
110-113	Zenbakizkoa	<p>SORTZAPEN EKITALDIA</p> <p>Eremu hau honako kasu hauetan soilik beteko da (bestelakoetan zeroak jarriko dira):</p> <p>a) Urteko laburpenean ageri diren errenta edo etekinetakoren bat aurreko ekitaldiren batean sortu edo eskatutako kopuru atzeratua denean, behar diren gainerako datuez gainera sortzapenaren ekitaldiaren lau zifrak jarriko dira.</p> <p>Aitortu bati hainbat ekitalditan sortutako kopuruak ordaindu bazaizkio, datuak hainbat erregistrotan banakatu behar dira: erregistro bakoitzean ekitaldi bakar bateko sortzapenen datuak soilik adierazi behar dira.</p>

		<p>b) Eremu hau beteko da, era berean, aitortuek aurreko ekitaldietan zor ez zela hartzeagatik edo behar baino gehiago hartzeagatik ekitaldian zehar itzuli dituzten kopuruak sartzen direnean 180 ereduan. Hala gertatzen denean, itzulitako kopuru bakoitza behar ez zela edo behar baino gehiago ordaindutako hartukizunaren modalitate berarekin adieraziko da, eta zenbatekoa “Atxikipenaren oinarria” eremuan adieraziko da; “Atxikipenaren oinarriaren zeinua” eremuan “N” jarriko da eta “Sortzapenaren ekitaldia” eremuan itzulitako hartukizuna sortu zen urtea adieraziko da. Pertsona edo erakunde batek hainbat ekitalditan sortutako hartukizunak itzuli baditu, haien zenbatekoa hainbat idatzoharretan (erregistrotan) banakatu behar da; hain zuzen ere, haietako bakoitzean ekitaldi bakarreko hartukizunen itzulketak soilik zehaztu behar dira.</p>
114	Zenbakizkoa	<p>HIGIEZINAREN KOKAPENA Gako hauetatik dagokiona esleituko da alokatutako higiezinaren egoerarekin bat eginez:</p> <ol style="list-style-type: none"> 1. Espainian (EAE eta Nafarroa salbu) kokatutako katastro erreferentzia duen higiezina. 2. Euskal Autonomia Erkidegoan kokatutako eta katastro erreferentziako higiezina. 3. Nafarroako Foru Erkidegoan kokatutako higiezina. 4. Aurreko egoeraren batean dagoen, baina, katastro erreferentziarik ez duen higiezina.
115-134	Alfanumerikoa	<p>KATASTRO ERREFERENTZIA EDO ZENBAKI FINKOA Errentatutako higiezinaren katastro erreferentzia edo zenbaki finkoa jarriko da.</p>
135-327	Alfanumerikoa	<p>HIGIEZINAREN HELBIDEA. Errentatutako higiezinaren helbidea jarriko da. Eremu honetan atal hauek daude: 135-139 BIDE MOTA. Bide mota adierazten duen kode alfabetikoa jarri behar da, Estatistikako Institutu Nazionalak (EIN) ezarritakoaren arabera normalizatua. 140-189 BIDE PUBLIKOAREN IZENA. Bide publikoaren izena idatzi behar da; osorik sartzen ez bada, ez da idatzi behar ez artikulurik, ez preposiziorik, ez juntagailurik, eta tituluak laburtuta idatzi behar dira (Ad.: kd = Kondea). Beste kasuetan ohiko laburdurak erabili behar dira. 190-192 ZENBAKITZE MOTA. Zenbakitze mota jarriko da (balioak: zk., km, z.g. eta abar). 193-197 ETXEAREN ZENBAKIA. Etxearen zenbakia edo kilometro puntua jarriko da.</p>

198-200 **ZENBAKIAREN KALIFIKATZAILEA.** Zenbakiaren kalifikatzailea jarriko da (balioak: BIS, DUP, MOD, ANT eta abar / metroak baldin eta zenbakitze mota = km).

201-203 **BLOKEA.** Blokea jarriko da (zenbakia edo letrak).

204-206 **ATARIA.** Ataria jarriko da (zenbakia edo letrak).

207-209 **ESKAILERA.** Eskailera jarriko da (zenbakia edo letrak).

210-212 **SOLAIRUA.** Solairua jarriko da (zenbakia edo letrak).

213-215 **ATEA.** Atea jarriko da (zenbakia edo letrak).

216-255 **OSAGARRIA.** Helbideari buruzko datu osagarriak. Balioak: nahi dena idatz daiteke. (Adibideak: "Urbanizazioa:"; "Merkataritza-zentroa:, lokala:"; "Azoka: postuaren zk.:"; "Eraikina:"; etab.).

256-285 **HERRIA.** Herriaren izena jarriko da, udalerrria ez bada.

286-315 **UDALERRIA.** Errentatutako higiezin dagoen udalerrriaren izena jarriko da.

316-320 **UDALERRIAREN KODEA.** Udalerrriaren KODE normalizatua jarri behar da, Estatistikako Institutu Nazionalak (EIN) ezarritakoaren arabera.

321-322 **PROBINTZIAREN KODEA.** Probintziaren kodea jarriko da. Errentatutako higiezinaren helbidearen probintziari edo, hala denean, hiri autonomoari dagozkion zenbakizko bi digituak jarri behar dira, zerrenda honen arabera:

PROBINTZIA	KODEA	PROBINTZIA	KODEA
Araba	01	León	24
Albacete	02	Lleida	25
Alacant	03	Lugo	27
Almería	04	Madril	28
Asturias	33	Málaga	29
Avila	05	Melilla	52
Badajoz	06	Murtzia	30
Bartzelona	08	Nafarroa	31
Burgos	09	Ourense	32
Cáceres	10	Palentzia	34
Cádiz	11	Palmas, Las	35
Kantabria	39	Pontevedra	36
Castelló	12	Errioxa	26
Ceuta	51	Salamanca	37
Ciudad Real	13	S.C. Tenerifekoa	38
Kordoba	14	Segovia	40
Coruña	15	Sevilla	41
Cuenca	16	Soria	42
Girona	17	Tarragona	43
Granada	18	Teruel	44
Guadalajara	19	Toledo	45
Gipuzkoa	20	Valentzia	46
Huelva	21	Valladolid	47
Huesca	22	Bizkaia	48
Balearr Uharteak	07	Zamora	49
Jaén	23	Zaragoza	50

323-327 **POSTA KODEA.** Errentatutako higiezinaren helbideari dagokion posta kodea jarriko da.

328-500 -----

HUTSIK

*Zenbateko guztiak positiboak izan behar dira.

*Edukirik gabeko **zenbakizko eremuak** zeroz bete behar dira.

*Edukirik gabeko **eremu alfanumeriko eta alfabetikoak** hutsik utzi behar dira.

***Zenbakizko eremu** guztiak eskuinean lerrokatu behar dira eta ezkerrean zeroz bete behar dira.

***Eremu alfanumeriko eta alfabetiko** guztiak ezkerrean lerrokatu behar dira eta eskuinaldean hutsik utzi, eta letra larriz idatzi behar da, karaktere berezirik gabe eta azentudun bokalik gabe, eremuaren deskripzioan kontrakorik azaldu ezean.